

16/06 IRIZPENA

Maite Alonso, presidentea
Xabier Aizpurua
Begoña Garamendi
Juan Carlos Jauregui
Isabel Kapanaga
Mari Tere Ojanguren
Antxon Rodríguez
Eva Blanco, Idazkari teknikoa

Euskadiko Eskola Kontseiluaren Batzorde Iraunkorraren 2016ko irailaren 22ko bilkurara bazterrean aipatutako kideak joan ziren. Batzorde horrek adostasunez eman du ondoko irizpena: **Haur Hezkuntzako, Lehen Hezkuntzako eta HHEko ikastetxe publikoetan 2016-17. ikasturterako maisu-maistren LPZk arautzen dituen Dekretu Proiektuari buruzkoa.**

I. EDUKIA

Dekretu proiektu honek 3 artikulua, 7 xedapen gehigarri eta 7 eranskin ditu.

1. artikulua I.etik VII.era bitarteko eranskinetan jasotako lanpostu zerrendak (LPZ) onartzen ditu.

2. artikulua irakasle ibiltariei buruzkoa da eta 3. artikulua lanpostu zerrenden hornikuntza-sistema zein izango den ezartzen du.

Lehenengotik zazpigarrenerako xedapen gehigarriek soldaten osagarri orokorrak eta kargu eta erantzukizunen arabera esleitutakoak jasotzen dituzte.

II. PLANTILLEN ANALISIA

Dekretu proiektu honetan lantzen diren *Maisu-maistren Kidegoko lanpostu zerrendek (LPZ)* eragina dute Haur eta Lehen Hezkuntzako ikastetxe publikoetan, Helduen Hezkuntzako (HHE) zentroetan eta patronatu gisa izendatutako hezkuntza bereziko zentroetan. Bestalde, Bigarren Hezkuntzako ikastetxeetako maisu-maistren LPZ sartuta dago irizpen pean jarri den dekretuan, zeinak Bigarren Hezkuntzako Kidegoen LPZ jasotzen baitu.

Aurreko ikasturtearekin alderatuta, lehenik eta behin ondorioztatzen da LPZ hauetako plaza kopurua iazkoaren berdina dela (9.927). Haur eta Lehen Hezkuntzako ikastetxeetan 11 plaza gehiago daude, HHE zentroetan 7 gutxiago, eta Patronatuetan 6 gutxiago.

Erljio katolikoko (151) eta erlijio islamikoko (2) maisu-maistren plaza kopurua iazkoen berdina da. Plaza horiek ez dira plaza osoak, langile osagarrien taulan ageri den bezala.

Hezkuntzako lurralde ordezkarietara atxikitako lanpostuak ez dira sartzen ezin irakasle kidegoren espezialitatean; ikastetxe zehatz bati atxiki ezin zaizkion irakasle plazak dira, hots, lurralde ordezkarietarako estali behar dituzten premia orokorragoei erantzuten dietenak. Horien artean daude eskolaz kanpoko jarduerak egiteko irakasleak, logopedak, jangelako arduradunak, hizkuntza indargarriko irakasleak, kulturartekotasunekoak, e.a.

LPZ organikoetako maisu-maistren plazak, jomuga motaren arabera. 2015-16 eta 2016-17 ikasturteak.

<i>Jomugak</i>	2015-16	2016-17	<i>Δ Azken ikasturtea</i>
Haur eta Lehen Hezkuntzako ikastetxeetako postuak	8.869	8.880	11
Erlijio katolikoko irakasle postuak	151	151	0
Erlijio islamikoko irakasle postuak	2	2	0
HHE ikastetxeetako postuak	417	410	-7
UHEI	10	10	0
Patronatuak	25	19	-6
Lurralde Ordezkarizetako postuak	453	455	2
LPZ organikoa guztira	9.927	9.927	0

Espezialitateei dagokienez, Haur Hezkuntzakoak (-53) murriztu dira gehien, aldiz, Lehen Hezkuntzakoak (37), Pedagogia Terapeutikokoak (24), eta Entzumen eta lengoaiakoak (13) ugaritu egin dira. Gainerako aldaketak oso txikiak dira.

Haur eta Lehen Hezkuntzako ikastetxe publikoetako maisu-maistren kidegoko LPZ organikoko espezialitateak. 2015-16 eta 2016-17 ikasturteak.

<i>Jomugak</i>	2015-16	2016-17	<i>Δ Azken</i>
Haur Hezkuntza	2.590	2.537	-53
Lehen Hezkuntza	3.423	3.460	37
Euskara	18	16	-2
Ingelesa	596	599	3
Frantsesa	1	0	-1
Gorputz Hezkuntza	377	370	-7
Musika	301	295	-6
Aholkularia	292	294	2
Pedagogia Terapeutikoa (PTE)	579	603	24
Entzumena eta Lengoaia (ALE)	121	134	13
Ikastetxeak Konfiguratu Beharrekoak (CPC)	571	572	1
LPZ organikoa guztira	8.869	8.880	11

“Ikastetxeak konfiguratu beharreko postu” gisa tipifikatuta daudenen edukiak ikasturtez ikasturte aldatu daitezke ikastetxe bakoitzeko premien arabera, betiere Administrazioak behar bezala justifikatzen baditu. Izaera aldakor horren ondorioz, ezin dira behin betiko hornitu lehiaketa arrunt baten bidez.

Plantilla organikoen *euskalduntzeari* bagagozkio, HE2 duen irakasle portzentajea %97,9koa da Haur eta Lehen Hezkuntzako ikastetxeetan, eta %56,6koa HHEko irakasleen artean. UHEIko lanpostu guztiek (batek izan ezik) dute esleituta HE2 eskakizuna (%90), Patronatuen lanpostuen kasuan %52k, erlijio katolikoko lanpostuetan %94,7k eta ordezkartzetako postuetan %81,5ek.

Maisu-maistren kidegoko plantilla organikoetan HE2 esleituta duten plazen portzentajea, ikastetxe edo jomuga motaren arabera. 2015-16 eta 2016-17 ikasturteak.

		2015-16	2016-17	Azken ikasturtea
Haur eta Lehen Hezkuntza	2HErekin	8.652	8.692	40
	Guztira	8.869	8.880	11
	2HE	%97,5	%97,9	%0,4
HHE	2HErekin	229	232	3
	Guztira	417	410	-7
	2HE	%54,9	56,6	%1,7

Lurralde ordezkartzetan kokatutako 455 plazak ikastetxeetako *plantilla osagarriko* 816 postuen barruan daude. Izan ere, plaza horiek berez ez daude ikastetxe zehatz bati atxikita modu iraunkorrean.

Normalean plazaren beraren izaeragatik gertatzen da hori, halako plazak ikasleen ezaugarrien arabera egoten baitira eta, beraz, plaza aldakorak dira. Bigarren arrazoi bat ere bada, plazen partzelazioa hain zuzen. Sarritan plaza erdi bat edo plazaren herena esleitzen zaio ikastetxe bati, eta egoera horretan daude hain zuzen plantilla osagarrian sartzen diren 48 PTE plazak.

Erlijioiko plazen kasuan, oro har osatu gabeko plazak direnez, ez dira sartzen plantilla osagarriaren batuketan, ez eta ratioen kalkuluan.

Haur eta Lehen Hezkuntzako ikastetxe publikoetako plantilla osagarriko plazen banakatzea 2015-16 eta 2016-17 ikasturteetan

	<i>Plaza mota</i>	2015-16	2016-17	Δ Azken ikasturtea
1. taldea	Hezkuntza marko hirueleduna (HMH)	20	20	0
	Eskolaz kanpokoak	131	96	-35
	Jangela - poltsa	15	4	-11
	Jangela - ikastetxea	200	213	13
	Zuzendaritzako laguntzaileak (kronikoak)	19	9	-10
	Kulturartekotasuna	4	3	-1
	Hizkuntza indargarrirako irakasleak (HII)	135	129	-6
2. taldea	PTE	41	48	7
	2. taldeko beste batzuk	277	294	17
Plantilla osagarria guztira		842	816	-26
	Erljio katolikoa*	84	80	-4

Ondorioz, Haur eta Lehen Hezkuntzako ikastetxe publikoetako funtzionamendu plantilla osoak 9.696 maisu-maistra barne hartzen ditu, aurreko ikasturtean baino 15 gutxiago.

Haur eta Lehen Hezkuntzako ikastetxe publikoetako funtzionamendu plantillen bilakaera. 2015-16 eta 2016-17 ikasturteak.

	2015-16	2016-17	Δ Azken ikasturtea
LPZ organikoa	8.869	8.880	11
Plantilla osagarria	842	816	-26
Funtzionamenduko LPZ	9.711	9.696	-15

Alderatzen baditugu plantilla eta ikastetxe horietan matrikulatu den ikasle kopuruaren hazkundera (aurreko ikasturtean baino 206 gutxiago), ondorioztatu daiteke ikasgelako irakasle ratioa (1,68), ikasgelako ikasle ratioa (18,7) eta irakasleko ikasle ratioa (11,15) ia ez direla aldatu aurreko ikasturtearekiko.

Ikasle, irakasle eta unitateen eta horiei dagozkien ratioen bilakaera Haur eta Lehen Hezkuntzako ikastetxe publikoetan 2015-16 eta 2016-17 ikasturteetan.

		2015-16	2016-17	Azken ikasturtea	
Unitateak edo ikasgelak (aurre-matrikula)	Haur Hezkuntza, 2 urte	637	645	8	1,3
	Haur Hezkuntza, 2. zikloa	1.722	1.688	-34	-2,0
	Lehen Hezkuntza	3.349	3.394	45	1,3
	Hezkuntza Bereziko ikasgela egonkorak	34	33	-1	-2,9
	Unitateak guztira	5.742	5.760	18	0,3
Ikasleak (aurre-matrikula)	Haur Hezkuntza, 2 urte	9.038	9.004	-34	-0,4
	Haur Hezkuntza, 2. zikloa	32.840	31.634	-1.206	-3,7
	Lehen Hezkuntza	66.287	67.315	1.028	1,6
	Hezkuntza Bereziko ikasgela egonkorak	135	141	6	4,4
	Ikasleak guztira	108.300	108.094	-206	-0,2
Irakasleak: funtzionamendu plantillak		9.711	9.696	-15	-%0,15
Irakasle / ikasgela ratioa		1,69	1,68	0,01	-0,2
Ikasle / ikasgela ratioa (1)		18,86	18,77	-0,09	0,6
Ikasle / irakasle ratioa		11,15	11,15	0,00	-0,5

(1) Haur eta Lehen Hezkuntzako ikastetxeetako ikasgelako ikasle ratioa gehienez 23,7koa da, eta ratio hori Lehen Hezkuntzako ratio handienaren (25), Haur Hezkuntzako 2. zikloko ratioaren (23) eta 2 urteko mailaren (18) arteko batez bestekoaren emaitza da.

III. BALORAZIO ETA PROPOSAMENAK

Dekretu proiektuko datuen banakatzean ikus daiteke Haur eta Lehen Hezkuntzako ikastetxe publikoetako plantilla organikoak 11 plaza gehiago dituela, eta HHEko maisu-maistrak berriz 7 gutxiago direla. Dena den, bigarren hezkuntzako LPZn 5 plaza gehiago daude HHEko zentroetan.

Haur eta Lehen Hezkuntzako ikastetxe publikoetako funtzionamendu errealeko plantillei dagokienez, aurrean 15 plaza gutxiago daude, eta aurre-matrikulan berriz 206 ikasle gutxiago daude. Beraz, iazko ratioak mantenduko dira.

Ondorioz, Kontseiluak ulertzen du Hezkuntza Sailak mantendu egingo dituela plantillak esleitzeko aurretik ezarritako irizpideak. Positibotzat jotzen du hori eta espero du etorkizunean bide beretik jarraituko dela.

Irizpen hau zure erabakiaren menpean geratzen da.

Bilbo, 2016ko irailaren 22a

IDAZKARI TEKNIKOA

Sin.: Eva Blanco Ochoa

Ikus-Onetsia

PRESIDENTEA

Sin.: Maite Alonso Arana

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA ETA KULTURA SAILBURUA